

Lasarte-Oria herrian eta udalean euskararen erabilpena normalizatzeko arauei buruzko udal-ordenantza

Mila bederatziehun eta hirurogeita hemezortziko Konstituzio espainiarrak eta Euskadiko Autonomia Estatutuak agintzen dutenaren arabera, euskara, Euskadiko berezko hizkuntza, eta gaztelera gure Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialak dira eta hiritar guztiek dute bi hizkuntzak ezagutu eta erabiltzeko eskubidea, eta Autonomia Erkidegoko Instituzio Komunei dagokie bi hizkuntzen erabilpena bermatu eta arautzea.

Azaroaren 24ko 10/82 Oinarrizko Legean garatzen da Autonomia Estutuaren 6. artikuluan agintzen dena. Eta hantxe ezartzen dira, Euskal Autonomia Erkidegoan kokaturik dauden aginte publiko guztientzat, hiritarrei aitortu eta onartzen zaizkien hizkuntza-eskubideek dakartzaten betebeharrak. Era berean, Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, hain zuzen, Euskal Administrazio Publikoan hizkuntza-normalizaziorako prozesua garatu eta arautzeko, hainbat neurri bideratzen du. Jokabide Administrazio Komunerako Legeak ere hartu du aintzat elebitasunaren sustapena.

86/1997 Dekretuaren bidez, testu bakar batean bildu dira, eta erregularizatu, argitu eta harmonizatu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoetan euskararen erabilpena eratu eta ordenatzeko gaien inguruan Euskal Gobernuak eman dituen hainbat Dekretutan banaturik azaltzen diren agindu guztiak.

Administrazio bakoitzaren eta aginte publikoen ardura da, norik bere jardun-esparruan, aipatu diren arauak aplikatzea eta burutzeko behar diren bitartekoak erabiltzea. Horixe da, hain zuzen, arautegi honen helburua: Lasarte-Oriako Udalaren aginte-esparruan elebitasuna sustatzeko indarrean dauden xedapen orokorrak aplikatu eta garatzeko, beharrezko arauak erregulatu eta betetzea.

Beraz, arautegi hau aipatu arau horietan oinarritzen da, lasarte-oriatarrei erabat eta benetako hizkuntza-eskubideak aitortzetik abiatuta.

Xedapen orokorrak

1. artikulua.

Euskara, Euskadin bertako hizkuntza, gaztelerekin batera, Lasarte-Oriako Udaleko hizkuntza ofiziala da. Lasarte-Oriako Udalak indarrean dauden lege eta arauak dioten eran eta arautegi honetako xedapenek agintzen duten moduan erabiliko du euskara, bai bertako barne funtzionamenduari dagokionez, bai hiritarrekiko harremanetan eta, berdin, gaineratiko erakunde eta instituzioekin.

2. artikulua

Euskara eta gaztelera hizkuntza koofizialak biak badira ere, oso urruti daude berdintasun eta normalizazio bera izatetik. Hori dela eta, ezagutza eta erabilpenean

parekotasuna lortzearren, Lasarte-Oriako Udalak elebitasunaren aldeko planak eta neurriak bultzatuko ditu.

3. artikulua

Euskararen erabilpenaren normalizaziorako Oinarrizko 10/1982 Legearen bidez hiritar guztiei aitortzen zaizkien funtsezko hizkuntza-eskubideen arabera, Lasarte-Oriako Udalak, bere esparruan, zinegotziei nahiz enplegatuei eta, oro har, hiritar guztiei honako hizkuntza-eskubide hauek aitortzen dizkie:

A) Udalarekin edo Udalaren menpeko beste edozein erakunderekin nola ahozko hala idatzizko harremanak erdaraz nahiz euskaraz izateko eskubidea.

B) Udalak antolatu edo eskatuta ematen den edozein ikasketa mota bi hizkuntza ofizialetan jasotzeko eskubidea.

C) Udalaren edozein argitaraldi eta egunkari, irrati edo beste edozein komunikabideren bitartez Udalak jakinarazten dituen era guztietako ohar edo xedapenak, izaera administratiboa eduki ala ez, euskaraz nahiz erdaraz jasotzeko eskubidea.

D) Udaletxean egiten diren bileretan, bi hizkuntza ofizialetatik bakoitzak nahi duena erabiltzeko eskubidea.

Euskararen erabilpena udaletxeko barne-funtzionamenduan

4. artikulua

Lehen esan dugun eran, hiritarrak Udalarekin beraiek nahi duten hizkuntza ofizialean erlazioa daitezkeenez, instituzio honekiko harremanak euskara hutsean nahi dituztenen zentsua egingo du Udalak. Zentsu horretan izena ematen duten pertsoneri Udalak euskara hutsean egingo die; baita, nahiz eta zentsuan sarturik egon ez, Udalari euskaraz zuzentzen zaizkion guztiei ere.

5. artikulua

Lasarte-Oriako Udalak behar diren neurriak hartuko ditu, Administrazio publikoan hizkuntzaren normalizazio-prozesua arautzen duen Dekretuaren arabera dagokion mailan mailako helburu minimoa lortzeko.

6. artikulua

Euskal Autonomia Erkidegoan erroturik dauden Administrazio publikoekin euskaraz erlazionatzeko hiritarrek duten eskubidea bermatu ahal izateko aginte publikoak neurri egokiak hartuko ditu euskararen erabilpena normalizatzeko, bai zerbitzu-hizkuntza den aldetik eta bai lan-hizkuntza moduan. Hori horrela izanik, Lasarte-Oriako Udalak bere normalizazio plana egingo du, eta erabilpenerako beharrezko diren mikroplanak ere bai, aipatu diren

eskubideak bermatzeko; Udalak, nolana ere, zerbitzuak behartzen ez dituenean, langileek berek hautatzen duten hizkuntza erabiltzea errespetatuko du.

6.1. 86/1997 Dekretuak agintzen duenaren arabera, horrek arautzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetako hizkuntza-normalizazioa eta euskararen erabilpena, Lasarte-Oriako Udalak euskararen erabilpenari dagokion bideragarritasun plana burutuko du, eta hori Korporazio osoko bilkuran onetsiko.

6.2. Lasarte-Oriako Udaleko lanpostu bakoitzari bere hizkuntza-eskakizuna dagokio.

6.3. Hizkuntza-eskakizunak eta eskuratu beharko direneko epeak Udal osoko bilkuran ezarriko dira, Hizkuntza Politikarako Kontseilaritzaordearen diktamena ikusi ondoren.

6.4. Hizkuntza-eskakizunak eta eskuratu beharko direneko epea Udaletxeko lanpostuen zerrendan azalduko dira, eta hizkuntza-planifikazioaldi bakoitzaren amaieran ikuskatuko.

6.5. Udalak beharrezko diren bitarteko guztiak ipiniko ditu langileen eskumenean, lanpostu jabeek, udal langile hauek alegia, postu bakoitzarentzat izendatutako hizkuntza-eskakizuna lortu ahal izan dezaten. Bitarteko hauek, batik bat, bi eratakoak izango dira: bakoitzaren beharren arabera ikastaroak eta hizkuntza-formazio profesionala.

Lasarte-Oriako Udaleko langile finko guztiak joan ahal izango dira euskara-ikastaroetara, nahiz eta hizkuntza-eskakizuna derrigorrezkoa ez den lanpostuetan aritu. Ikastaroak lan orduetatik kanpo egingo dira. Ordu lektiboen erdiak langileak berak ordaindu beharko ditu, eta beste erdiak lana eginda bezala kontatuko dira. Ikastarorako matrikula Lasarte-Oriako Udalak ordainduko du.

6.6. Udaletxeko langile izateko oposizio, lehiaketa edota barne promozioetan, hizkuntza-eskakizunei dagokienez, indarrean dagoen legediak eta Arautegi horrek agintzen dutena beteko da zehatz-mehatz.

7. artikulua

Lasarte-Oriako Udaletxean aurkezten diren dokumentuak, nahiz Lasarte-Oriako Udalak bidaltzen dituenak, erredaktaturik datozen Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizial hartan inskribatuko dira. Lasarte-Oriako udalerraren egoera eta bilakaera soziolinguistikoa hobeto ulertzen lagunduko duten ikerketa estatistikoak egiteko posibilitatea eskaini nahi litzateke horrela. Erregistroko ziurtagiriak, noski, eskatzen dituenak hautatzen duen hizkuntzan egingo dira.

8. artikulua

Lasarte-Oriako Udaletxean, euskararen erabilpena honako puntu hauetan ezartzen denaren arabera aplikatuko da:

8.1. Udal organo guztien bilera-deialdiak nahiz aktak bi hizkuntza ofizialetan idatziko dira.

8.2. Udaletxeko bando, arautegi, ordenantza eta xedapen guztiak bi hizkuntza ofizialetan publikatuko dira.

8.3. Lasarte-Oriako Udaletxeko inprimaki guztiak euskaraz eta erdaraz idatziko dira, edozein hizkuntza ofizialetan betetzeko moduan. Era berean, Lasarte-Oriako Udaletxeko zigiluak bi hizkuntza ofizialetan inprimatuta egongo dira.

8.4. Bi hizkuntzen erabilpenean, 8.1, 8.2 eta 8.3 puntuetan aipatzen denean, euskarari emango zaio lehentasuna.

8.5. Lasarte-Oriako Udalak egiten dituen ziurtagiri guztiak bi hizkuntzetan idatziko dira. Alabaina, hizkuntza hautatzeko aukera emango da; eta agiria hizkuntza jakin batean eskatzen badu, hizkuntza horretan idatzita emango zaio.

8.6. Programa eta informatika-material guztiak euskaraz funtzionatzeko moduan prestatuta egongo dira.

8.7. Lasarte-Oriako Udaletxeko egoitzen errotulazioa bi hizkuntza ofizialetan ipiniko da.

8.8. Beste administrazio publiko batzuetatik edo erakunde ofizialetatik iristen zaion dokumentazioa euskaraz eta erdaraz bidal diezaioten eskatuko du Lasarte-Oriako Udalak.

8.9. Komunikabideetan argitaratzen diren iragarkiak bi hizkuntzetan jakinaraziko dira, nahiz eta lehentasuna euskarazko mezuari eman. Era berean, komunikabideetara bidaltzen diren informazio eta oharrak euskaraz eta erdaraz bidaliko dira; eta berria bi hizkuntzetan eman dezaten eskatuko zaie.

8.10. Euskara, bera bakarrik, kasu hauetan erabiliko da:

a) Udalari euskaraz bakarrik zuzendu zaizkionei bidaltzen zaizkien erantzunetan

b) Ordenantza honetako 4. artikulua arabera zentsuan inskribatu direnei bidaltzen zaizkien dokumentu, notifikazio eta gutunetan.

c) Jarduera motaren izaerak eta erabiltzaileen hizkuntza-espezialitateak hala eskatzen dutenean.

8.11. Hizkuntzen ahozko erabilpenari dagokionez:

a) Udalak eta bere barruko hainbat departamentuk antolaturiko ekintza, hitzaldi, e.a. euskaraz izango dira, ekintza-motak, inguruneak edo entzuleak horrela eskatzen dutenean. Gaineratikoetan, ahal den neurrian, bi hizkuntzetan egingo da, lehentasuna euskarari emanda.

Lasarte-Oriako udalerrian euskararen promozioa eta normalizazioa

9. artikulua

1. Lasarte-Oriako Udalak, bere kompetentzi barrutian, kale, bide, auzo, bailara, mendi, ibai, erreka eta, oro har, toponimia mota guztien izendegi (nomenklator) ofiziala finkatuko du; hori bai, jatorri euskalduna, erromantzea edo erdalduna errespetatu eta hizkuntza bakoitzari dagokion grafia akademikoa erabiliz.

2. Ibilbide publikoko iragarki eta seinale guztiak bi hizkuntza ofizialetan idatziko dira. Euskarazko testuari emango zaio lehentasuna, baina ulergarritasunarentzat inolako oztopo izan gabe eta nazioarteko arauak errespetatzen direla.

3. Kaleen errotulazioa bi hizkuntzetan egingo da, 9.1. artikuluan ezarritakoarentzat oztopo izan gabe.

10. artikulua

Ordenantza honen helburua da, gainera, Lasarte-Oria udalerriko gizarte bizitzan euskararen erabilpena sustatzea. Sustapen hori egingo da euskarak gero eta indar gehiago izan dezan: bai eremuari dagokionez, berdin demografia aldetik, eta baita funtzio edo betekizunen aldetik ere; hitz batean, xedea da euskara ezagutu eta euskaraz hitz egiten duen jendea gero eta gehiago izatea, euskararen funtzioak gehitzea, gero eta jarduera gehiagotan erabiltzea eta euskararen erabilpena normalizatua izango den tokiak zabaltzea.

11. artikulua

10. artikuluan aipatzen den xedea lortzeko, Lasarte-Oriako Udalak, bost urtetik bost urtera, hizkuntza-politikaren nondik norakoak bilduko dituen plan estrategikoa onartuko du, eta plan hori burutuko da Euskara Batzordearen esku-hartze plan eta urteroko aurrekontuen bidez.

12. artikulua

Bai plan estrategikoak eta bai urteroko burutze planak honako jardunbide hauetan euskara gehiago erabiltzeko neurriak izango dituzte:

- Familia-transmisioa gehitzeko neurriak.
- Eskola-transmisioa gehitzeko neurriak.
- Denbora librean eta aisialdian euskara gehiago erabiltzeko neurriak.
- Kultura-ekintzetan euskara gehiago erabiltzeko neurriak.
- Gizarte Zerbitzu guztietan euskara gehiago erabiltzeko neurriak.
- Herriko komunikabideetan euskara gehitzeko neurriak.
- Lan esparruan euskara gehiago erabiltzeko neurriak.

13. artikulua

10, 11 eta 12. artikuluan esaten dena oztopatu gabe, baina haurrak eta gazteak, ia-ia denak, elebidunak direla ikusirik, belaunaldi gazteek hizkuntzetan hizkuntza-gaitasun orekatua lor dezaten, Lasarte-Oriako Udalak 18 urtetik beherakoentzat antolatzen dituen jarduera eta zerbitzu guztiak bi hizkuntzetan burutuko dira.

Helburu berarekin, Lasarte-Oriako Udalak beharrezko diren programak garatuko ditu, aurreko paragrafoan esaten dena herriko gaineratiko erakundeek sektore horretako jendearentzat antolatzen dituzten zerbitzu eta jardueretan ere bete dadin.

14. artikulua

Azaroaren 24ko 10/82 Oinarri Legeak bere 26 eta 27. artikuluetan agintzen duenaren arabera, aginte publikoari dagokio euskara gizarteko esparru guztietan eta publizitatean erabiltzeko eta, oro har, gizarte bizitzan bere presentzia ugaltzeko behar diren neurriak hartzea.

Beraz, Lasarte-Oriako Udalak, helburu hori lortzeko asmoz, bere jarduna mugaturik dagoen esparru barruan, honako neurri hauek hartu eta betearaziko ditu:

1. Hizkuntza gaietan, betebeharrak Administrazioarenak bakarrik direla, eta bizilagun partikularrek hizkuntza-eskubideak baino ez dituztela kontuan izanik, Udalak elebitasun soziala sustatuko du, kultura, kirol edo atsedeen elkarten eskumenean doan, iragarki, ohar eta gaineratiko jakinarazpenak euskaraz eta erdaraz egin ahal izateko medio teknikoak ipiniz.

2. Publizitate errotuluei dagokienez, Udalak subentzioak emango dizkie merkataritza-entitate eta izaera ofiziala ez duten gaineratiko guztiei, honako irizpide hauen arabera:

Euskaraz edo euskaraz eta erdaraz erredaktaturiko errotulua ipintzen duenari gastuaren % 50 ordainduko zaio, betiere 50.000 pezetara arte.

Denda irekitzeko baimenaren berri ematerakoan, artikulua honetan izendatzen diren subentzioen berri ere emango zaie interesatuei.

Artikulu honetan agintzen dena bete dadin, Udalak euskara zerbitzuren aholkularitza eta itzulpen-lana doan eskainiko du, eta hala jakinaraziko die interesatuei.

Irizpide hauek, nolana ere, Publizitatearen gaineko Udal Zerga kobratzeko Ordenantza Fiskala aplikatzen den kasurako direnez, errotuluan izena, abizena edo izena eta abizena bakarrik azaltzen direnean, ez da emango, inolaz ere, 2. puntuari aipatzen den subentziorik.

15. artikulua

Lasarte-Oriako Udalak ohiko irakaskuntzaz kanpo euskara ikasten duten bizilagunei subentzioak emango dizkie. Ikasle guztiek izango dute aukera, ematen diren bekak jasotzeko;

ikastaro bakoitzean indarrean dagoen matrikulazio tarifaren % 40 da jaso ahal izango den kantitatea, beti ere eskatzen duenak honako baldintza hauek guztiak betetzen baditu:

a) Gutxienez, ikastaro osoan zehar, % 90eko asistentzia izan.

b) Gutxieneko aprobetxamendua gainditu; hori, ikastetxe bakoitzeko Zuzendariaren oniritzipean, dagokion irakasleak ziurtatu beharko du.

Duen eragina kontuan izanik, bost urtetik beherako umeren bat duten eta udalerrian erroldaturik dauden gurasoek, herrian eskolaz kanpoko jardueretan ari diren monitoreek, eta udalerriko dendetan lan egiten duten merkatariak, ikastaro bakoitzean indarrean dagoen matrikulazio tarifa oinarri dela, bekaren %75 jaso ahal izango dute, baldin eta lehen aipatu diren baldintza guztiak betetzen badituzte.

Hizkuntzaren normalizaziorako, udalaren azpiegitura

Udal organo exekutiboek bultzatu eta erabakiko dituzte ordenantza hau aplikatu eta garatzeko beharrezko diren neurri eta programak.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Udal organo exekutiboek bultzatu eta erabakiko dituzte ordenantza hau aplikatu eta garatzeko beharrezko diren neurri eta programak.

XEDAPEN DEROGATZAILEA

Derogaturik geratzen dira, Ordenantza honen maila bereko edo apalagokoak izanik, hemen esaten denaren aurka dauden xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPEN ETA BAKARRA

Gipuzkoa Lurralde Historikoko Buletin Ofizialean publikatu eta handik hurrengo egunean sartuko da indarrean ordenantza hau, 15. artikulua izan ezik hori 2000/2001 ikasturteari ekiten zaionean hasiko da aplikatzen.